

2025eko ekaina



Baitu, baikara, bainaiz

Bait partikula aditz laguntzailearen edo trinkoaren aurre-aurrean kokatzen da. Iparraldeko tradizioan eta Hegoaldeko Nafarroako testuetan, zenbait salbuespen baztergarri alde batera utzirik, aditzari atxikirik agertzen da beti, lehenengo testuetatik gaurdaino. **Bait** atxikirik idazteari hainbatek ikusten dion eragozpenik larriena, aditzari lotzean gertatzen diren letra ezabatzeak edo aldaketak dira. Baina lotura legeok aski errazak dira.

Pasa gaitezen, bada, Euskaltzaindiak jasota duen araua urratsez urrats azaltzera.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

Beti aditzari (aditz laguntzaileari *-baita-* edo aditz trinkoari *-baitator-*) lotua idatziko da. Kontuan izan behar da, dena den, nola hasten den aditza, idazkera aldatzen baita:

- **Bait** partikularen azkeneko "t" hori **bere horretan uzten da** laguntzailea "z"-rekin hasten bada.
- Bai-"t"- **galdu** egiten da "l", "n" edo "h"-ren aurrean gertatzen denean.
- Bai-"t".- "k" **bihurtzen** da "g"-ren aurrean.

<i>bait + naiz</i>	bainaiz
bait+luke	bailuke
bait+gara	baikara
bait+haiz	baihaiz
bait+du	baitu
bait+zara	baitzara

Beraz, **bait** partikula, kasu guztietan, aditzari atxikia idatz dadila: **bainaiz, baikara, baitoaz, e.a.**, eta ez ***bai(t) naiz, *bai(t) gara, *bai(t) doaz, e.a.**



Ohiko erdarakadak



✗ **Argudio egokiak erabili zituen hauraren ama zela probatzeko.**



✓ **Argudio egokiak erabili zituen hauraren ama zela frogatzeko.**

✗ **Unibertsitatera sartzeko frogak.**



✓ **Unibertsitatera sartzeko probak.**

frogatu ≠ probatu

Froga bidez zerbait egiaztat edo ziurtzat agerrarazi edo ezagutaraztea da **frogatu**; besterik da **probatu**: a) Zerbait edo norbait, omen den bezalakoa ote den egiaztatu. b) Dastatu



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!

Lanak, erabilerak edo garrasio / Obras, usos o transportes:		ATE BERRI BAT ASTIGARRAGATIK SAN MIGELERA ERAMATEA, BI IDIK BOTATAKO ORGA BATEKIN TRASLADO DE UNA NUEVA PUERTA DESDE ASTIGARRAGA A SAN MIGUEL DE ARALAR CON UN CARRO TIRADO POR DOS BUEYES	
Errepidea / Carretera	GI-2120	LIZARRA - BEASAIN, LIZARRUSTIN BARRENA DE ESTELLA A BEASAIN POR LIZARRUSTI	
k.p. / p.k.:		Lekua / Lugar:	ASTIGARRAGATIK LIZARRUSTIRA DE ASTIGARRAGA HASTA LIZARRUSTI

Lanak, erabilerak edo garrasio / Obras, usos o transportes:		ATE BERRI BAT ASTIGARRAGATIK SAN MIGELERA ERAMATEA, BI IDIK GARRAIATUTAKO ORGA BATEKIN TRASLADO DE UNA NUEVA PUERTA DESDE ASTIGARRAGA A SAN MIGUEL DE ARALAR CON UN CARRO TIRADO POR DOS BUEYES	
Errepidea / Carretera	GI-2120	LIZARRA - BEASAIN, LIZARRUSTIN BARRENA DE ESTELLA A BEASAIN POR LIZARRUSTI	
k.p. / p.k.:		Lekua / Lugar:	ASTIGARRAGATIK LIZARRUSTIRA DE ASTIGARRAGA HASTA LIZARRUSTI

BOTATAKO ≠ GARRAIATUTAKO

Zain dezagun euskara!